



## DSS2016EUk 12 proiektu aurkeztuko ditu gaur Lugaritz K.E.-n

Gaur, 18:30ean, Lugaritz Kultur Etxeak hartuko du DSS2016EUk antolatu dituen herritarrei zuzendatuko bost aurkezpen-saioetako lehenengoa. Saioan, Donostia 2016 proiektua zertan datzan azaltzeaz gain, programazioaren lehen aurrerapen bat ere eskainiko da, hamabi ekimenez osatutakoa.

Easo kalea, 43  
Donostia / San Sebastián  
20006 Spain

[www.dss2016.eu](http://www.dss2016.eu)  
[info@dss2016.eu](mailto:info@dss2016.eu)

T +34 943 483 344

Datozen saioak honakook izango dira:

- Larunbata, martxoaren 7a (12:00): 2016 Gunea.
- Asteartea, martxoaren 10a (18:30): Tomasene K.E. (Altza).
- Ostirala, martxoaren 13a (18:30): Ernest Lluch K.E. (Amara).
- Astelehena, martxoaren 16a (18:30): 2016 Gunea.

Ordu eta laurden inguru iraungo duten saio hauek elebidunak izango dira, eta aldibereko itzulpena edukiko dute. Gainera, keinuen hizkuntzara egokituta ere egongo dira.

Jarraian DSS2016EU lantaldeak elkartze hauetan herritarrei ezagutzera emango dizkion hamabi proiektuen zerrenda:

### Ahotsen itsasargia

#### 1) *Uda-gau bateko ametsa*

##### **William Shakespeareren betiereko lanaren aparteko emankizuna**

2016ko ekainaren 21etik uztailaren 24ra, DSS2016EU lurraldean.  
Eragileak: Tanttaka Teatroa, Fundación Cristina Enea, Basque Culinary Center, Musika-kontserbatorioak, Kukai Dantza Konpainia, Easo Abesbatza, TAE, Dantzaz konpainia

William Shakespeareren heriotzaren 400. urteurrena dela eta, Kristina Enea parkea haren lanik adierazgarrienetako baten agertoki bihurtuko da: Uda gau bateko ametsa.



Basorik egokiena da emanaldi hau hartzeko; izan ere, publikoa orain arte ez bezala murgiltzeko pentsatu da.

Ikuskizunak antzerkia, dantza eta musika batzen ditu, eta publikoari parte hartzeko aukera ematen dio. Hain zuzen, lanaren agertokia izango den ezkontza oturuntzako gonbidatuak izango dira ikusleak. Emanaldia ekainaren 21ean egingo da lehen aldiz, udako solstizioaren hasieran, istorioa gertatzen den gara magikoan, alegia, eta egunero antzetzuko da hilabetez. Iluntzero, 300 pertsona gonbidatuko dira ezkontza aurreko otordu batean parte hartzera, eta aitzakia umoretsua izango da gauez istorio ibiltari batean murgiltzeko. Hain zuzen, Kristina Enea baso magikoko txoko eta bidexka harrigarrietan zehar gertatuko da istorioa, eta antzerkia, musika eta dantza bateratuko ditu.

Uda gau bateko ametsa da Ahotsen Itsasargiaren proiektu nagusietako bat. Ekimen handia da, eta asmoa zera da, ikusleak hunkitzea, zentzumenak kitzikatuko dituen esperientzia bat eskaintzea eta antzerki klasikoaren ate bat irekitzea, letra unibertsalen lan kanoniko baten bidez. Iñaki Rekartek eta Fernando Bernuések zuzendu dute, eta Patxo Telleriak egokitu du. Jatorrizko lana Juan Gartzia euskaratu du eta euskaraz zein gaztelaniaz errepresentatuko da.

## 2) **Corners Of Europe**

### ***Europako kanpoaldeko artea konektatu da***

*2015-2016an, DSS2016EU lurraldean.*

*Eragileak: Intercult (Stockholm), Exodos (Ljubljana), POGON (Zagreb), Drugo More (Rijeka), City Culture Institute (Gdansk), Arts Council of Northern Ireland (Belfast), ISIS Arts (Newcastle), REX (Belgrade), DokuFest (Prizren), Teatro Pubblico Pugliese (Bari).*

Corners of Europe Europako periferiako sortzaileen sarea da. “Europako txokoetako” sortzaileak harremanetan jartzen ditu talde-espedizioen bidez, eta jatorri eta diziplina ezberdinetako artisten arteko lankidetzaren proiektuak sustatzea du helburu. Sei euskal artistek (Juan Aizpitarte, Beatriz Churruca, Ixone Ormaetxe, Borja Ruiz, Asier Zabaleta eta Joseba Irazoki) hartzen dute parte Europako 50 artista baino gehiagorekin batera.

Proiektuak ohiko testuinguruetatik at eramaten ditu artistak eta bultzatu egiten ditu periferiatan, txokoetan esku-hartzeak egitera eta esperientzia horiek kontinentearen gainontzeko tokietara eramatera, parte-hartzaileen arteko lanaren ondorioz sorturiko diziplina anitzeko lan edo ekimenen bidez erakusteko.

## 3) **In varietate concordia**

### ***Ba al zenekien Donostian 100 inguru hizkuntza hitz egiten direla?***

*2015-2016an, Donostian*

*Eragileak: Marga Berra Zubieta, Bagera*

Europar Batasunaren lema den *In varietate concordia* gure hiriko hizkuntza aniztasuna ezagutaraztea du xede. Donostiako kaleetan 101 hizkuntza inguru entzuten dira egunero. Aniztasun hori nabarmentzeko asmoz, ekimenak zubiak eraiki nahi ditu hizkuntza guztien artean. Hitzak izango dira lehengaiak, eta horiek ahoskatzeko modua, berriz, konexiorako aitzakia. Esaterako, “su” euskaraz, “chou” (“aza”) frantsesez eta “shoe” (“oinetakoa”) ingelesez oso antzera ahoskatzen dira, baina bestelako esanahiak dituzte.

Proiektuak proposatzen duen jolasak hitzak modu ludikoan jasotzea du helburutzat,



loturak eta haiek duten ahalmen poetikoa erakusteko. Donostiako 11 poliglota arduratuko dira hitzen arteko harreman horiek deskribatzeaz.

Marga Berra artista grafikoaren zuzendaritzapean egingo da, eta ideia hau izango du abiapuntutzat: hitzak desberdinak dira, baina soinuari erreparatuz gero, soinu bera egiten dute. Zenbait lantegi egin ondoren, erakusketa bat antolatuko da, eta liburu fonetiko-poetiko bat argitaratuko da.

#### 4) Emusik

*2016ko apirila eta maiatzean, DSS2016EU lurraldean.  
Eragileak: EMU (European Musik School Union), EHME (Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte), Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola*

##### **Zer soinu egiten dute aldi berean jotzen diren 20.000 musika tresnek?**

Europar inoiz egin den eta aldi berean joko duten musikari gehien izango dituen kontzerturik handiena egingo da Donostian, Emusik ekimenari esker. 26 herrialdetako 20.000 musikaririk aldi berean interpretatuko dute pieza klasikoek eta musika modernoak osatutako musika erreperatorio bat. Gainera, abagune honetarako berariaz sortutako Emusik 2016 abestia joko dute. Abiapuntua izango da Europako Musika Eskolen Elkarteak bi edo hiru urtean behin antolatzen duen musika eskolen jaialdirako. Jaialdian mila kontzertu baino gehiago eskainiko dira lurralde osoan, Baiona eta Gasteiz artean.

Hala, 70 musika eskolak antolatuko dituzte batera, musika estilo ugari nahasteko asmoz; besteak beste, trikitia, biolina, musikagile klasikoek piezak eta gaur egungo soinuak nahasiko dira. Proiektuak musikaren aldeko apustua egiten du, bizikidetzarako tresna izan dadin, aniztasuna eta lankidetzaren oinarritza eta aukera paregabea eskaintzen du kulturen eta herrialdeen artean ezagutza eta esperientziak trukatzeko.

## **Bakearen itsasargia**

#### 5) Bake-ituna

*Bakearen ingsurruan Europar antolatutako erakusketarik handiena*

*2016an, DSS2016EU lurraldean.  
Eragileak: Artium-Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo, Biblioteca Nacional, Calcografía Nacional, CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux, FRAC Fond Régional d'Art Contemporain, Fundación Carlos de Amberes, Museo de América, Musée d'Aquitaine, Museu d'Art Contemporani de Barcelona, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo de Bellas Artes de Gasteiz/Álava, Musée Bonnat de Bayona, Museo del Ejército, Musée Georges Pompidou, Museo Nacional d'Art de Catalunya, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Museo del Prado, San Telmo Museoa, Musée Basque et de l'histoire de Bayonne, Zumalakarregi Museoa.*

Artearen eta zuzenbidean bakearen, gerraren eta indarkeriaren arteko harremanen errepresentazioari buruzko ibilbidea, bi gunetan banatutako (Koldo Mitxelena Kulturunea eta San Telmo Museoa) erakusketa nagusi batean eta 1500 urtetik pasa den mende amaierara arteko garaia jorratzen duena. Proiektua osatzeko, Donostiak 1813. urtean jasan zuen suteari buruzko erakusketa antolatu zen, 2013an ere ikusgai egon zena lurraldeko hainbat kulturgunetan. Ekimenak barne hartzen ditu hainbat azterketa-kasu eta bertako historiarekin lotura duten zenbait mugarriren erakusketak, adibidez, 1659ko



Pirinioetako Bakea edo 1839ko Bergarako besarkada.

Gainera, proiektuak aurreikusten du zazpi artista gonbidatzea —Ibon Aranberri, Asier Mendizabal, Juan Luis Moraza eta Alejandra Riera, besteak beste— interbentzio zehatzak garatzeko, Aldiriak izenekoak, proiektuak lantzen dituen gaiei buruz. Azkenik, erakusketen egitura zabal osoa jasoko eta dokumentatuko duten hiru publikazio argitaratzea aurreikusten da eta hiru saiakera monografiko ere gaineratuko zaizkie.

Deslokalizatutako erakusketa handi hau 2016ko Donostiaren Kultur Hiriburutzaren proiektu nagusietako bat da. DSS2016EU ekimenaren proiektuaren gai nagusi bat aztertzen duen proiektua da –bakea hain zuzen–, eta «Elkarbizitzarako kultura» leloarekiko koherentea da.

## 6) Antzerki forum: eta hik zer?

### ***Elkarbizitza eta adiskidetzeta bultzatzeko antzerki parte-hartzailea***

*2015-2016an, DSS2016EU lurraldean.*

*Eragileak: Baketik Fundazioa.*

Zapalduen antzerkiaren eskolak ezarritako premisetan oinarritutako ekimenak antzerkia erabili nahi du indarkeriak eta gizarte-gatazkak eragindako sentimenduei, kontraesanei eta arketipoei aurre egiteko.

Bi ordu iraungo dituen esperientziaren bidez, Euskadiko gizarteak iragan hurbilean jasan duen gatazka berriz bizitzeko aukera izango dute ikusleek, etorkizun kolektiboari beste ikuspuntu batetik aurre egiteko, hurrengo hauetan hausnartuz: Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu? Zer egin behar dugu berriz gertatu ez dadin.

Eszenatokian, eguneroko hainbat egoera antzeztuko dituzte eta, horietan, ikusleari istorioak nola jarraitu nahi duen galdetuko zaio. Inprobisazio horren bidez publikoaren parte-hartzea sustatuko da.

Guztira, 100 saio egingo dira 2015 eta 2016an eta bakeranzko bidean gizarte bezala inspiratuko gaituzten etorkizuneko nahi eta konpromisoak jasoko dira. 2016an, desira horiek ezagutzera emango dira eta herritarrekin partekatuko dira.

## 7) Dance 2gether

### ***Elkarrekin bizitzeko gai bagara, elkarrekin bizi gaitzke***

*2015-2016an, DSS2016EU lurraldean.*

*Eragileak: centros escolares del territorio, DE-LooPERS, Dantzagunea.*

Esperimentu honek neska-mutilek hartzen dituzten rolen arteko aldea lausotu nahi du dantza komunitarioaren bidez, baita komunitateko kide izatearen sentimendua indartzea eta lankidetzeta sustatzea ere.

Proiektua abiarazteko, dantza komunitarioaren inguruko prestakuntza-saioak egingo dituzte profesionalekin lehengo, eta ikastetxeekin, ondoren. Ikasleek bost egun emango dituzte dantza lantzen. «Ekinez ikasten dela» premisari, Unescoren balio nagusietako bati, jarraiki, ikasleek koreografia bat sortuko du. Proiektuaren oinarria Donostiako Larramendi zentroan grabatu zuten Five Days to Dance film arrakastatsuen bidez jakinarazi dute.



## 8) Harea artean

### ***Sormena, artea eta Sahararen egoerari buruzko hausnarketa, haima baten azpian***

*2016ko apiriletik ekainera, Donostian.*

*Eragileak: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, San Telmo Museoa.*

Proiektu honen muina *Tuiza* instalazioa da. Federico Guzmán artistak (Sevilla, 1964) sortu du, Museo Reina Sofiarekin koprodukzioan. Bojadarren tindatu dituzten *melhfa* izeneko Saharako emakumeen soineko tradizionalaz osatutako haima batek batasuna, elkartasuna eta enpatia irudikatuko ditu.

Haimaren babesean hainbat jarduera jarduera egingo dira, besteak beste, mintegiak, hitzaldiak, ikuskizunak, eztabaidak... 2016ko apiriletik ekainera, *Harea artean* eztabaidari eskainitako topagune pedagogikoa izango da, eta askotariko gaiak jorratuko dituzte bertan: giza eskubidea, emakumea bakearen eraikuntzan, kolonialismoa, nazioarteko lankidetzaz, haurtzarora...

## **Bizitzaren itsasargia**

## 9) Hirikilabs

### ***Ondoren irakasteko ikastea***

*2016an, DSS2016EU lurraldean.*

*Eragileak: Tabakalera*

Teknologia herritarren zerbitzura jartzeko laborategia da Hirikilabs. Tabakalera, Kultura Garaikidearen Sormen Zentroarekin batera sorturiko ekimenaren helburua abangoardiako tresnekin esperimintatzea da, *Do It Yourself* (egin ezazu zuk zeuk) filosofiari jarraiki, eta ezagutza partekatze teknologia berriak erabiltzea, tailerretan eta ikastaroetan.

Laborategia hiru arlotan banatuko da: lantaldea, Hirikikas eta Hirikilabs plaza. Lantaldearen funtzio nagusia askotariko gaiei buruzko ikerketa-ildoak sortzea eta Hirikikas ildoak hartuko dituen jarduerak sustatzea da. 3D inprimaketari edo patinete bat artisau eran sortzeko moduari buruzko tailer eta ikastaroak egiten dira, adibidez, herritarrentzako irekiak, parte hartzaileak gaitu eta ikerketa-prozesuan sortutako informazioa erakusteko.

Azkenik, Hirikilabs plaza proiektuak proposatzeko eta autonomoki gauzatzeko topagunea izango da: *maker* mugimendurako atea.

## 10) Time Machine Soup

### ***Gustuaren zentzuarekin jolasteko happening bat***



*2016ko otsailean, DSS2016EU lurraldean.*

Denbora-makina honek iraganera eramango gaitu dastamen-papilen eta gastronomiaren bidez. Partaideek hamabi zopa historiko dastatuko dituzte, erlojuak markatzen duen ordu bakoitzeko bana. Proiektuaren helburua europar kontinentearen historia markatu duten une ezberdinak deskubritzea da, horretarako garai bakoitzeko propioak diren elikagaiak erabiliz. Horrela, gustuaren zentzuak nola eboluzionatu duen erakutsi nahi da. Ekimena materializatzeko, perormance multidiziplinar bat egingo da, eta Donostian lehen geltokia egin ondoren, lurraldeko hainbat tokitara zabalduko da.

## **11) 2016 bidea**

### ***Paisaia, artea eta kultura***

*2016ko martxotik urrira, DSS2016EU lurraldean.*

Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Iparraldeko paisaia naturalak ekologikoki ezagutzeko ibilbidea da. Oinez ibiltzeko bidea etorkizunerako ondore izango da. 2016an adierazpen artistikoez hartuko dute, bizimodu jasangarria eta adierazpen artistiko-kulturalak uztartuko dituen egitasmoari esker. 2016 ibilbidea 32 etapaz egongo da osatuta, eta mendiaz gozatzeko proposamen berritzailea da.

Martxotik urrirako igande guztietan txangoak antolatuko dituzte, etapa bakoitzeko bat. Etapa betetzen dutenek kontzertuez, ikuskizunetz, erakusketez eta instalazio artistikoez gozatu dute inguru naturalean.

## **12) Europar elkarrizketak**

### ***Herritarrek Europari buruzko auzietan parte hartzeko eztabaida irekiak***

*2015-2016an, DSS2016EU lurraldean.  
Eragileak: Globernance, San Telmo Museoa.*

*Europar elkarrizketak* herritarren parte-hartzera irekitako solasaldi-zikloa da. Bertaratuek, gainera, hizlariekin Europako gaiei buruzko hitz egiteko aukera izango dute. Hona hemen hizlarietako batzuk: Jose Manuel Durão Barroso, Europako Batzordearen presidente ohia; Antonio Vitorino, Justiziako komisario ohia; Fausto Pocar, Nazioarteko Zigor Auzitegiko magistratua eta Saskia Sassen, Herbehereetako soziologoa.

Justizia, emakumearen egoera, giza eskubideak, multinazionalen eragina, ingurunea edota Europaren transformazioa izango dira landuko dituzten gaietako batzuk. Ekimenaren xedea hizlarien eta herritarren arteko eztabaidarako gunea izatea da. Sare sozialen bidez hartu ahalko da parte.

Gainera, saio bakoitzean poeta batek parte hartuko du, eta hitzaldian landuriko gaiari buruzko kutsu sozialeko olerkiak idatziko du. Zikloaren amaieran, errezitaldi bat emango da, eta olerki horietako batzuk entzun ahalko dira, abesti bihurtuta.